

Herrialde-txostena: Singapur

basque
trade &
investment

2020ko ekaina

+ Singapurreko bulegoa
+ Adimen Lehiakorreko Unitatea



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
Gobernua.....	4
Biztanleria.....	4
Ekonomia.....	4
Beste batzuk.....	4
2. BEGIRADA	5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	7
4.1. Abagune ekonomikoa	7
4.2. Balantza komertziala.....	8
4.3. Atzerriko inbertsioa.....	9
4.4. Enplegua	10
5. KANPO-MERKATARITZA	11
6. ALDEBIKO HARREMANAK	14
6.1. Euskadiren eta Singapurren arteko merkataritza.....	14
6.2. Euskadiren posizionamendua.....	17
6.3. Aldebiko inbertsioak	19
7. SEKTORE NAGUSIAK	20
7.1. Ekarpeta BPGari.....	20
7.2. Negozio-aukerak	20
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	24
8.1. Nazioarteko kidetasunak	24
8.2. Merkataritza-akordioak	24
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	26
9.1. Herrialdearen arriskua	26
10. ONDORIOA	29
11. ERREFERENTZIAK	31



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Singapurren hazkunde adierazleak 2017-2019	8
2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak 2014-2018.....	8
3. taula: Singapurreko atzerriko inbertsioaren adierazleak, 2016-2019	9
4. taula: Singapurreko enplegu adierazleak	10
5. taula: Singapurrek 2018an esportatutako produktu garrantzitsuenak	12
6 taula: Singapurrek 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak.....	12
7. taula: Singapurrek 2018an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak. Milioi USD.....	13
8. taula: Euskadiko kanpo-merkataritza Singapurrekin, milaka euro	14
9. taula: Euskadik 2018an Singapurrera esportatutako produktu garrantzitsuenak	15
10. taula: Euskadik 2018an Singapurretik inportatutako produktu garrantzitsuenak.....	15
11. taula: Euskaditik Singapurrerako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka	16
12. taula: Espainiatik eta Euskaditik Singapurrera esportatutako produktuen ranking-a, milaka eurotan (2015-2018)	17
13. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren ranking-a hazkundearen arabera, 2002-2017	18
14. taula: BPGaren banaketa sektoreka, 2019.....	20
15. taula: Euskadiko esportazioen ranking-a vs Singapurren inportazio interesak	21
16. taula: COFACEren balorazioa	26

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: Singapurreko esportazioen jomuga garrantzitsuenak	11
2. grafikoa: Singapurreko inportazioen jatorri garrantzitsuenak	11
3. grafikoa: Euskadiren eta Singapurren arteko merkataritza	14
4. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%)	16
5. grafikoa: Inportazioen hazkundea 2012-2017	19



1. DATU OROKORRAK



Gobernua

Errepublikako presidentea: Halimah Jacob.
Lehen ministroa: Lee Hsien Loong.
Gobernu mota: Errepublikak demokratiko parlamentarioa.

Biztanleria

Guztira: 5.844.389 biztanle (2020ko maiatza).
Hazkunde naturala¹: % 0,5
Hirietako biztanleria: % 100
Hizkuntza ofiziala: ingelesa, mandarina, Malaysiera eta tamila.
Negoioetarako hizkuntza: ingelesa erabiltzen da gehien.
Hiriburua: Singapur.
Hiri garrantzitsuenak (biztanleria): Singapur, hiri-estatua da.



Ekonomia

BPGa (2019, milioi euro)²: 331.657,16
Manufakturako BPGa (2019, milioi euro): 69.510 (% 20,9)
Per capita BPGa (PPP, 2019, euro): 58.148
Per capita BPGaren hazkundera (2019): % 0,7
Urteko inflazioa (2018): % 0,4
Enplegua (azken zifra 2019koa da)³: 3,78 milioi.
Enplegu-tasa (2018): % 64,72
Langabezia-tasa (2019. urteko batez bestekoa)⁴: % 2,3
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2019, milioi euro)⁵: 340,51
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2019, mila milioi euro): 313,14
Merkataritza (BPGaren %-a): % 32,6
Kanbio-tasa (2020ko martxo): euro 1 = 1,57 SGD

Beste batzuk

GGI⁶: 9/189
I+G-n eginiko gastua BPGarekiko (2017)⁷: % 2,1664
Internet erabiltzaileak⁸: % 88,16

¹ Worldbank, Singapore Statistics. <https://data.worldbank.org/country/singapore>

² Singstat.gov, Singapore Economy. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/economy>

³ Ministry of Manpower, Summary Table: Employment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Employment-Summary-Table.aspx>

⁴ Ministry of Manpower, Summary Table: Unemployment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Unemployment-Summary-Table.aspx>

⁵ Singstat, Singapore Exports and Imports. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>

⁶ Eustat, Giza garapenaren indizea.

https://www.eustat.eus/elementos/ele0013500/ti_Indice_de_Desarrollo_Humano_por_indicadores_segun_paises_2019/tbl0013566_c.html

⁷ Worldbank, Singapore Statistics. <https://data.worldbank.org/country/singapore>

⁸ Worldbank, Singapore Statistics. <https://data.worldbank.org/country/singapore>



2. BEGIRADA

Puntu honetan azterlan bat baliatuko dugu, zeinetan aztertzen diren 31 zonaldetan banatutako 48 herrialdek Euskadi eta BasqueTrade-arentzat izan lezaketen interesa.⁹

Azterlan horretan, Singapur eta ASEAN eremua zazpigarren postuan kokatzen dira, lehentasunezkoak diren zortzi herrialdeen multzoan: Estatu Batuak, Txina, Alemania, Frantzia, Mexiko, Erresuma Batua, ASEAN eta India.

Singapurrek alde du bere ekonomiaren dinamismoa eta negozioak egiteko *HUB* bat izatea ASEAN-Asia Hego-ekialdeko Nazioen Elkartearen eremuan. BasqueTrade-k garatutako proiektuak eta euskal enpresek egindako kontsultak asko emendatu dira azken urteotan, baina Euskadiren presentzia komertziala nahiko apala da oraindik, bai Singapurren eta bai eskualdeko beste herrialde batzuetan.

Gainera, Singapurren negozioak egiteko erraztasuna argi ageri da Munduko Bankuak urtero argitaratzen duen “*Doing Business*” txostenean historikoki lortu dituen emaitzei begiraturata, lehen postuetan ibili baita azken urteetan, eta bigarren posturaino iritsi baita 2020. urtean, Zeelanda Berriaren atzetik¹⁰.

Euskadiko ezarpenen kopurua eta Singapurrera eginiko esportazioen bolumena mugatuak dira, eta hori aukeratzat jo liteke. Singapur merkatu konplexua da bere tamaina txikiagatik eta atzerriko lehia handiagatik, baina gorago esan bezala oso merkatu garrantzitsua da, batez ere sarbidea delako ASEAN eremuko beste merkatu batzuetara, handiagoak eta lehiakide gutxiagokoak.

Singapurreko industria nagusiak dira: finantza sektorea, petrokimika, elektronika, enpresa farmazeutikoak eta goi-mailako teknologikoak. Gehienbat herrialde inportatzailea denez, inportazio horien zati bat eskualdeko beste herrialde batzuetara esportatzen du. Singapurren esportazioen artean aipatzekoak dira: makineria eta ekipamendua, elektronika eta telekomunikazioak, produktu farmazeutikoak, petrolio produktu birfinduak eta gai kimikoak, denak ere gehienbat Hong Kong, Txina, Malaysia, Indonesia eta Europar Batasunera doazenak.

Singapurrek gehien inportatzen dituen ondasunak hauek dira: makineria eta ekipamendua, erregai mineralak, produktu kimikoak, elikagaiak eta kontsumo-ondasunak, nagusiki Txinatik, Malaysiatik, Hego Koreatik, Europar Batasunetik, Estatu Batuetatik eta beste herrialde batzuetatik¹¹.

Txosten hau idatzi den unean Singapur murgilduta dago COVID-19ak sortutako krisian. Singapurreko gobernuak hainbat neurri-multzo onartu ditu enpresei eta norbanakoei laguntzeko pandemiak ekarri dituen ondorio ekonomikoak gainditzeko.

2020ko maiatzera arte, gobernuak injekzio ekonomikoak egiteko lau neurri-multzo iragarri ditu, guztira 90 mila milioi SGD baino gehiagokoak (57,6 mila milioi €), eta urteko aurrekontuaren erdia baino gehiago bideratu du injekzio horietara. Gainera, Singapurreko historia laburrean bigarren aldiz erabili dira erreserba ekonomikoak; azken aldia 2008ko finantza-krisian izan zen, baina orduan askoz ere erreserba gutxiago erabili ziren¹².

Funts horiek (beste xedapen fiskal batzuekin batera) lau neurritara bideratu dira nagusiki: “Enhanced Jobs Support Scheme (JSS)”, Singapurreko langileen soldataren %75eraino ordaintzeko; “Self-Employed Person Income Relief Scheme (SIRS)”, autonomoei laguntzeko; industria kaltetuenei laguntzeko neurri-sorta bat (abiazioa, turismoa, e.a.); eta enpresek behar besteko kreditua eskuratu dezaketela bermatzeko finantzaketa-neurriak.

⁹ Intereseko herrialdeei buruzko BasqueTrade-ren azterlana. Adimen Lehiakorreko Unitatea, 2019ko iraila.

¹⁰ Doing Business Worldbank, Singapore. <https://www.doingbusiness.org/content/dam/doingBusiness/country/s/singapore/SGP.pdf>

¹¹ Singstat.gov, Singapore International Trade. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>

¹² The Straits Times, From the Gallery: \$55b Resilience Budget to tackle coronavirus shows the importance of deep reserves amid continuing uncertainty. <https://www.straitstimes.com/politics/from-the-gallery-55billion-resilience-budget-to-tackle-coronavirus-shows-the-importance-of>



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

Singapurreko biztanleria oso anitza da arrazaz, kulturaz eta erlijioz. Jatorri txinatarreko biztanleak dira nagusi, biztanleria osoaren %74 hain zuzen; hurrengo talde etniko handiena malaysiarrak dira (%13,4), eta hirugarrena, berriz, indiarak (% 9). Aniztasun etniko horren ondorioz, lau hizkuntza ofizial daude: ingelesa, txinatar mandarina, malaysiera eta tamila. Halere, ingelesa da administrazioan, merkataritzan eta industrian gehien erabiltzen dena, eta hezkuntza sistemako hizkuntza nagusia. Erlijioen banaketa biztanleria bezain heterogeneoa da; txinatarren bi herenek onartzen dute badutela nolabaiteko atxikimendua konfuzionismoarekin, budismoarekin edo taoismoarekin (edo horien arteko konbinazioen batekin). Malaysiar ia guztiak eta indiar zenbait musulmanak dira, horixe delarik populazio osoaren zazpiren baten erlijioa, gutxi gorabehera. Komunitate kristaua oso azkar hazi da eta populazio musulmanaren parera iritsi da; ia kristau guztiak txinatarrek dira jatorriz.

Gobernu formari dagokionez, Singapur demokrazia parlamentarioan oinarritutako errepublika bat da. Halere, alderdi anitzeko herrialde bat izan arren, zentro-eskuineko Herri Ekintza Alderdia (PAP) dago boterean 1959az geroztik, eta harrezkero gehiengo nabarmena izan du legebiltzarrean. Horregatik, esaten da oposizioko alderdiek ez daukatela benetako aukerarik boterera iristeko.¹³ Hauek dira oposizioko talde garrantzitsuenak:

- Singapurreko Alderdi Demokrata (SDP): alderdi liberal demokrata.
- Singapurreko Langileen Alderdia (WP): zentro-ekzerreko alderdia, legebiltzarrean aulki gehien dituen oposizioko alderdia.

Hurrengo hauteskunde-datak:

- Presidentetzarakoak: 2023
- Legebiltzarrerakoak: 2020ko abendutik 2021eko apirilaren 15era bitartean

2015eko martxoan hil zen nazioaren “aitagoitzat” jotzen zen Lee Kuan Yew, eta oraingo lehen ministroa, haren seme Lee Hsien Loong (PAP), legebiltzarrerako hauteskundeetara aurkeztu zen 2015eko irailean eta botoen ia %70a eskuratu zuen (eta legebiltzarreko 87 aukietatik 81), bere neurri populistek emandako fruituak bilduz. Oposizioak (zortzi alderdi, eta indartsuena Workers Party deitua) apenas izan zuen aukerarik.

Heng Swee Keat finantza ministroa Singapurreko lehen ministro-orde izendatu zuten 2019ko maiatzaren 1ean. Aipatzekoa da aldaketa horrek apustu sendo bat erakusten duela Heng Swee Keat izan dadin hurrengo lehen ministrogia, litekeena baita Lee Hsien Loong erretiratzea¹⁴. Singapurreko presidenteari dagokionez, 2017ko irailaren 13an izendatu zuten kargu horretarako Madam Halima Yacob (Singapurreko legebiltzarreko bozeramaile ohia), bera izan zelako hautagaitza aurkezteko eskakizun guztiak gainditu zituen hautagai bakarra hasieran aurkeztu ziren hiru hautagaietatik.

Halimah Yacob da Singapurren kargu horretara iritsi den lehen emakumea, eta jatorri malaysiarreko bigarren presidentea, duela 47 urte kargu berera iritsitako Yusof Ishak-en ostean. Singapurreko presidente izateak erantzukizun batzuk ematen dizkio nazioko erreserbak eta aktiboak gainbegiratzeko lanean, baina ez dauka lehen ministroak edo kabineteko gainerako kideek dutenaren bezalako botere exekutiborik. 2020rako aurrekontuari dagokionez, amaierako zenbatekoak zenbait gorabehera izan ondoren pandemia globalak eragin duen ziurgabetasun ekonomikoagatik, azkenean 83.610 milioi SGDtan (53.500 milioi euro) finkatu da, BPGaren %16 inguru eta Singapurreko historia laburreko inoizko gastu handiena¹⁵.

¹³ Santander Trade, El marco político de Singapur. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/politica-y-economia>

¹⁴ ICEX, Marco Político de Singapur. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=SG>

¹⁵ Singapore Budget, Budget 2020. https://www.singaporebudget.gov.sg/budget_2020/



4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

Singapurreko ekonomiaren ezaugarri nagusiak dira finantza bikainak eta irekiera maila handia, eta horrek esan nahi du menpekotasun handia duela nazioarteko merkataritzarekiko. Halere, Singapurreko ekonomia %0,7 hazi zen 2019an¹⁶. Moteltze hori izan da azken 10 urteotako okerrena, bi arrazoi nagusiren ondorio: Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertziala, eta elektronikaren sektoreak izan duen atzerakada zikliko globala. Hazkuntza-faktoreen artean daude enpresekiko abegitsua den erregulazio-sistema bat, esportazio maila handia eta barne-eskaera¹⁷.

Pandemia globalaren ondorioz aurreikuspen ekonomikoak behin eta berriz aldatu eta gero, Merkataritza eta Industria Ministerioak maiatzaren 26an iragarri du 2020ko BPGaren aurreikuspena jaitsi egin duela eta kalkulatu du %-7tik %-4ra bitartean kokatuko dela. Hilabete lehenago, aurreikuspen hori %-4tik eta %-1ra bitartean zegoen¹⁸. Bere aldetik, NDFren aurreikuspenen arabera, Singapurreko ekonomia %3,5 murriztuko da 2020an eta %3 haziko da 2021ean¹⁹.

Zor gordina handia da oraindik (BPGaren %114,1, 2019an), eta ustez hazten jarraituko du hala 2020an nola 2021ean, ekonomiari egingo zaizkion injekzioengatik eta diru-bilketan espero den beherakadagatik. Zor publikoa handia izanagatik, finantza baloreek eta Singapurren beste aktibo batzuek aisa konpentsatzen dute zor hori. Aurreko urtean bezala, inflazioa Banku Zentralak finkatutako %2ko portzentajearen azpitik atxiki zen, 2019an %0,6koa izan zelarik²⁰. 2020ko datuak ez dira onak, inflazio-tasa negatiboak daude bai otsailean eta bai martxoan ere, lehen aldiz iragan hamarkadan.

Coface-ren arabera, hemendik aurrerako erronka ekonomikoen artean daude esportazioen moteltzea, Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertziala, produktu elektronikoen eskaera globalaren beherakada (esportazioen %13,5 hartzen dute), eraikuntza sektorearen ahulezia eta moneta-politika estua. Horri guztiari gehitu behar zaizkio pandemia globalak eragindako krisi ekonomikoa eta nazioarteko merkataritzaren beherakada, azken horrek eragin gogorra izango baitu Singapurreko ekonomian, merkataritzarekiko menpekotasun handia duelako.

Singapurreko *per capita* aberastasun-maila eskualdeko handienetako bat da, eta 2019an langabezia-tasa txikienetako bat izan zuen, % 2,2koa. Espero da tasa hori antzera mantenduko dela 2020an, egoera globala gorabehera.

Badaude alderdi negatibo batzuk ere: adibidez, diru-sarreraren arteko desberdintasunaren hazkunde progresiboa, gainpopulazioak eragindako ondoez soziala, enpleguagatiko lehiakortasun-maila handia, etxebizitzaren prezioa, lan kualifikatu eza, biztanleria zahartua eta bertako biztanleek etorkinekiko duten mesfidantza.

¹⁶ Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI downgrades 2020 GDP growth forecast to “-0.5 to 1.5 per cent”. <https://www.singstat.gov.sg/-/media/files/news/gdp4q2019.pdf>

¹⁷ Santander Trade, Contexto Económico de Singapur. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/politica-y-economia>

¹⁸ Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI Downgrades 2020 GDP Growth Forecast to “-7.0 to -4.0 Per Cent”. https://www.mti.gov.sg/Newsroom/Press-Releases/2020/05/MTI-Downgrades-2020-GDP-Growth-Forecast-to--7_0-to--4_0-Per-Cent

¹⁹ International Monetary Fund, World Economic Outlook, April 2020: The Great Lockdown. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>

²⁰ Department of Statistics Singapore, Singapore Consumer Price Index. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/consumer-price-index>



1. taula: Singapurren hazkunde adierazleak 2017-2019

Hazkunde adierazleak	2017	2018	2019	2020 (e)	2021 (e)
BPGa (<i>mila milioi USD</i>)	338,40	364,14	366,68	353,84	364,45
BPGa (<i>urteko hazkundea %-tan</i>)	3,7	3,4	0,7	-3,5	3
<i>Per capita</i> BPGa (USD)	60.297	64.579	65.031	62.754	64.637
Inflazio-tasa (%)	0,6	0,4	0,6	-0,2	0,5
Langabezia-tasa (<i>biztanleria aktiboaren %</i>)	2,2	2,1	2,3	2,2	2,1

Iturria: Agentzian bertan egina Singapurreko gobernuak eta IMF – World Economic Outlook Database erakundeak emandako datuekin (azken datuak)

4.2. Balantza komertziala

Singapurreko merkataritzak BPGaren % 326,2a ordezkatu zuen 2018an, eta munduko 16 inportatzaile eta esportatzaile garrantzitsuenetako bat izan zen. Gehien esportatzen diren produktuak dira makineria eta ekipamendu elektrikoak, erregai mineralak, produktu kimikoak, ekipamendu optiko eta medikoak, garraioa, negozioetako zerbitzuak, bidaiak-zerbitzuak eta finantzak. Inportazioei erreparaturuz gero, hauek izan ziren produktu garrantzitsuenak: zirkuitu integratuak, petrolio birfindua, makineria eta ekipamendu elektrikoak, negozioetako zerbitzuak, garraioa, bidaiak, erregalien ordainketak eta lizentziak.²¹

Merkatu-gaien merkataritzari dagokionez, esportazioak % 4,2 gutxitu ziren 2019an, aurreko urtearekin alderatuta. Inportazioak ere % 2,1 gutxitu ziren epealdi horretan. Singapurren bazkide komertzial garrantzitsuenak izan ziren Txina (% 13,4), Malaysia (% 11,1), Europar Batasuna (% 10,9), AEBak (% 10,3), eta Taiwan (% 6,5). 2020ko lehen hiruhilekoan, merkatu-gaien merkataritzak hazkunde txiki bat izan zuen, urte arteko % 0,6koa, nagusiki makineria espezializatu, urre eta produktu farmazeutikoen esportazioak handitu zirelako.

2019an, zerbitzuen esportazioak eta inportazioak % 2,2 eta % 0,4 hazi dira, hurrenez hurren. Hauek dira gehien esportatu ziren zerbitzuak: garraioa (% 29), negozioetarako beste zerbitzu batzuk (% 28), finantza zerbitzuak (% 14), bidaiak zerbitzuak (% 10), telekomunikazioak (% 7)²².

2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazleak 2014-2018

Kanpo-merkataritzaren adierazleak	2014	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	366.247	296.745	282.925	327.923	370.881
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	409.787	350.506	329.773	373.446	412.953
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	155.248	143.268	155.581	181.256	186.729
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	150.449	139.335	149.642	172.304	183.712
Kanpo-merkataritza (<i>BPGaren %</i>)	360,5	329,5	304,5	317,8	326,2
Balantza komertziala (<i>milioi USD</i>)	86.695	92.570	87.146	92.498	98.372
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (<i>milioi USD</i>)	73.803	84.077	84.706	84.631	96.727
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (<i>urteko hazkundea %-tan</i>)	2,8	3,4	0,1	7,5	4,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (<i>urteko hazkundea %-tan</i>)	3,6	5,0	0,0	5,7	5,1
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (<i>BPGaren %</i>)	168,5	151,1	138,9	146,4	149,8
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (<i>BPGaren %</i>)	192,0	178,4	165,6	171,4	176,4

Iturria: Munduko Bankua;

²¹ Santander Trade: Cifras del comercio exterior en Singapur: https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/cifras-comercio-exterior?actualiser_id_banque=oui&id_banque=11

²² Ministry of Trade and Industry, Main indicators of the Singapore economy. https://www.mti.gov.sg/-/media/MTI/Resources/Economic-Survey-of-Singapore/2019/Economic-Survey-of-Singapore-2019/MainIndicators_AES2019.pdf



4.3. Atzerriko inbertsioa

UNCTADek munduko inbertsioari buruz eginiko 2019ko txostenaren arabera, 2018an Singapur izan zen AIZ-ren (Atzerriko Inbertsio Zuzena) fluxu gehien jaso zuen munduko laugarren herrialdea, Estatu Batuen, Txinaren eta Hong Kongen ondotik. AIZ 77.650 milioi dolar estatubatuarrekoa izan zen 2018an (aurreko urtean 75.720 milioi dolarrekoa), orain arte izan duen zifrarik altuena. Singapurren inbertitzaile garrantzitsuenak dira Estatu Batuak, Birjina Uharte Britainiarrak, Kaiman Uharteak eta Herbehereak. Finantza eta aseguru jarduerak dira AIZ-ren hartzaile handienak, arlo horietara bideratzen baitira inbertsio guztien % 54,5²³.

Bestalde, Singapurrek asko inbertitzen du atzerrian, eta azken urteotan ahalegina egin du bere inbertsioa Asiako merkatu tradizionaletatik (Txina, India eta Vietnam) harago dibertsifikatzeko. Bere garapen ekonomikoa bultzatzeko, Singapurrek AIZ erakartzeko estrategia proaktibo bat aplikatu du, bere irekiera komertziala baliatu duelarik horretarako. Atzerriko inbertitzaileei emandako kredituek, bere erregulazio-sistema sinpleak, pizgarri fiskalek, goi-mailako kalitateko higiezin parke industrialak, egonkortasun politikoak eta ustelkeriarik ezak jomuga erakargarri bihurtu dute Singapur inbertitzaileentzat. Munduko araudi-sistema onenetako bat dauka zergak ordaintzeko (azkarra eta merkea da) eta kontratuak zehazteko.

3. taula: Singapurreko atzerriko inbertsioaren adierazleak, 2016-2019

Atzerriko Inbertsio Zuzena	2016	2017	2018
Sartzen den AIZren fluxua (<i>milioi USD</i>)	73.863	75.723	77.646
AIZ hornikuntza (<i>milioi USD</i>)	1.112.642	1.393.380	1.481.033
<i>Greenfield</i> inbertsio kopurua	391	390	420
Sartzen diren AIZak (<i>KFEGren %</i>)*	83,4	n/a	n/a
AIZ hornikuntza (<i>BPGaren %</i>)	369,2	n/a	n/a

**Kapital finkoaren eraketa gordinak (KFEG) neurtzen du enpresek, gobernuak eta familiek eskuratutako aktibo finkoei eginiko gehikuntzen balioa ken saldutako edo desegindako aktibo finkoen lagapenak. Iturria: UNCTAD*

²³ UNCTAD, World Investment Report 2019: https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf



4.4. Enplegua

Nazioarteko gertakariak gorabehera, Singapurrek langabezia-tasa baxua izan du azken urteotan. Azpimarratzekoa da enpleguaren portzentajea handia dela zerbitzu eta industria sektoreetan, eta hutsaren hurrengoa lehen sektorean. Hona hemen Singapurreko lan-merkatuaren datu garrantzitsuenak:

4. taula: Singapurreko enplegu adierazleak

Adierazlea	2019
Enplegua guztira (milioi)	3,784
ENPLEGUA SEKTOREKA (%)	
– Zerbitzuak	74,4
– Industria	12,8
– Eraikuntza	12,1
– Lehen sektorea	0,7
– Langabezia-tasa (%)	2,3

Iturria: Agentziak egina Singapurreko Lan Ministerioak (MOM) emandako datuekin

Aipatzekoa da atzerritarrek enpleguaren portzentaje altu bat hartzen dutela, eta hori bereziki esanguratsua da manufaktura sektorean (% 50 inguru 2019an) eta eraikuntzan. Eraikuntzan atzerritarren enplegu-maila guztizkoaren % 75 ingurukoa izan zen 2019an. Zerbitzuen sektorean, langileen % 25 inguru dira atzerritarrak (etxeko enpleguaren datuak kontuan hartu gabe).




5. KANPO-MERKATARITZA

Singapur munduko 14. ekonomia esportatzaile handiena izan zen 2019an²⁴. Gobernuak 2019an emandako datuen arabera, herrialdeak 340,51 mila milioi euroko esportazioak eta 313,14 mila milioi euroko inportazioak erregistratu ditu, eta horrek esan nahi du 27,37 mila milioi euroko saldo komertzial positiboa duela²⁵.


Aipatzekoa da diru-sarrera gehienak esportaziotik eskuratzen dituela, batik bat, makineriaren esportaziotik; hain zuzen, 2018ko esportazioen % 45 makineria, gailu elektriko eta ekipo-ondasun mekanikoen partidei dagozkie. Gainera, inportatutako partida gehienak, bereziki petrolioarekin lotutako produktuak, Singapurren eraldatzen dira, gero beste herrialde batzuetara esportatzeko.

H Hona hemen esportazioen jomugak eta Singapurrera egiten diren inportazioen jatorriak erakusten dituzten grafikoak²⁶. Espainia 30. postuan dago Singapurren hornitzaileen artean.

1. grafikoa: Singapurreko esportazioen jomuga garrantzitsuenak



2. grafikoa: Singapurreko inportazioen jatorri garrantzitsuenak



²⁴ Commodity, Singapore's foreign trade: <https://commodity.com/singapore/>

²⁵ Singstat.gov, Singapore international trade: <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>

²⁶ Comtrade: <https://comtrade.un.org/>



Hauk dira 2018an Singapurrek esportatu zituen produktu garrantzitsuenak:

5. taula: Singapurrek 2018an esportatutako produktu garrantzitsuenak

	PRODUKTUA	Milioi USD	%
85	Makinak eta gailu elektrikoak	\$128.784,1	% 31,28
84	Ekipo ondasun mekanikoak	\$58.728,3	% 14,26
27	Erregai mineralak	\$54.026,7	% 13,12
99	Saillatu gabeak	\$26.444,9	% 6,42
90	Optikako instrumentuak	\$19.212,0	% 4,67
71	Perlak eta harribitxiak	\$16.987,1	% 4,13
29	Produktu kimiko organikoak	\$16.885,2	% 4,10
39	Material plastikoak	\$15.943,4	% 3,87
33	Xaboiak	\$8.366,1	% 2,03
30	Produktu farmazeutikoak	\$8.356,2	% 2,03
88	Hegazkinak, ibilgailu espazialak eta horien zatiak	\$7.381,3	% 1,79
38	Askotariko produktu kimikoak	\$6.352,6	% 1,54
21	Elikadurako askotariko prestatuak	\$4.972,8	% 1,21
87	Automobilak	\$3.723,7	% 0,90
22	Edariak, likido alkoholdunak eta ozpina	\$2.900,9	% 0,70

Iturria: Comtrade

Aski jakina da Singapurrek egiten dituen inportazio gehienak berresportatzeko izaten direla. Singapurreko inportazioen zerrendaren goialdean petrolioia dago, inportazio guztien % 35arekin, eta segidan datoz ordenagailuak eta ordezeko piezak (%10).²⁷

Hauk dira 2018an Singapurrek inportatu zituen produktu garrantzitsuenak:

6 taula: Singapurrek 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenak

	PRODUKTUA	Milioi USD	%
85	Makinak eta gailu elektrikoak	\$101.603,8	% 27,42
27	Erregai mineralak	\$87.875,9	% 23,72
84	Ekipo ondasun mekanikoak	\$53.090,2	% 14,33
71	Perlak eta harribitxiak	\$20.395,5	% 5,50
90	Optikako instrumentuak	\$12.097,2	% 3,27
88	Hegazkinak, ibilgailu espazialak eta horien zatiak	\$11.765,8	% 3,18
39	Material plastikoak	\$8.722,8	% 2,35
29	Produktu kimiko organikoak	\$6.941,7	% 1,87
87	Automobilak	\$5.429,3	% 1,47
38	Askotariko produktu kimikoak	\$5.155,5	% 1,39
33	Xaboiak	\$4.477,3	% 1,21
73	Galdaragintza-, burdin- edo altzairu-manufakturak	\$3.440,3	% 0,93
99	Saillatu gabeak	\$3.303	% 0,89
72	Galdaragintza, burdina eta altzairua	\$2.935,8	% 0,79
30	Produktu farmazeutikoak	\$2.931,5	% 0,79

Iturria: Comtrade

²⁷ Open Company Singapore, Imports and Exports: <https://www.opencompanysingapore.com/imports-and-exports-in-singapore>



Singapurrek 2018an Europako herrialde nagusietatik inportatutako produktu garrantzitsuenen xehetasunak. **Singapurrek Europako herrialde nagusietatik inportatutako produktu garrantzitsuenak ikusteko: [Ikusi gehiago](#) (7. taula)**

Euskadik Singapurren duen sarpem komertzial baxua aztertzeko, hona hemen Europako 5 bazkide garrantzitsueni eginiko erosketak sektoreka. Ikusten da, batik bat, garraiorako elementuak inportatzen direla, ondotik datozelarik erdi-manufakturak, kapital-ondasunak eta kontsumo-ondasunak.

7. taula: Singapurrek 2018an Europako herrialde nagusietatik eginiko inportazioak. Milioi USD.

Kodea	Frantzia	Alemania	Italia	Espania	EB	Guztira
5- Garraioko elementuak	\$3.696,4	\$2.360,2	\$254,7	\$159,7	\$3.241,5	\$9.712,4
2 - Erdi-manufakturak	\$1.651,3	\$2.835,4	\$1.112,3	\$476,8	\$1.398,4	\$7.474,1
4 - Kapital-ondasunak	\$1.182,1	\$3.695,0	\$860,2	\$125,8	\$1.486,9	\$7.350,0
6 - Kontsumo-ondasunak	\$3.185,0	\$812,4	\$1.315,2	\$325,0	\$582,1	\$6.219,6
1 - Elikagaiak eta edariak	\$1.545,0	\$131,0	\$145,5	\$97,5	\$740,4	\$2.659,4
7 - Beste ondasun batzuk	\$123,6	\$273,2	\$653,7	\$60,0	\$265,9	\$1.376,4
3 - Energia	\$110,3	\$74,8	\$579,7	\$53,8	\$162,0	\$980,7
Guztira	\$11.493,7	\$10.182,0	\$4.921,1	\$1.298,7	\$7.877,1	\$35.772,7

Iturria: COMTRADE, BEC Classification by Broad Economic Categories.



6. ALDEBIKO HARREMANAK

6.1. Euskadiren eta Singapurren arteko merkataritza

Hurrengo taulan ikusten den bezala, Euskaditik Singapurrerako esportazioak nahiko apalak dira. Halere, 2014an behea jo ondoren, euskal esportazioek goranzko joera izan dute.

Singapurretik egiten diren inportazioak are txikiagoak dira, kautxua eta kautxuarekin lotutako produktuak gehienbat.


8. taula: Euskadiko kanpo-merkataritza Singapurrekin, milaka euro²⁸

	2014	2015	2016	2017	2018	2019
Esportazioak	357.839,97	67.757,31	55.741,03	51.250,79	69.918,28	85.912,03
Inportazioak	4.725,00	3.989,31	11.096,67	23.339,19	14.591,19	22.757,95
Balantza komertziala	353.114,97	63.768,00	44.644,36	27.911,60	55.327,09	63.154,08

Iturria: Eustat

Singapur Euskadiren 51. bazkide komertziala izan zen 2019an, eta aldebioko merkataritza 108 milioi eurora iritsi zen. Gainera, Singapurrekiko balantza komertziala beti positiboa izan da Euskadirentzat.

3. grafikoa: Euskadiren eta Singapurren arteko merkataritza



²⁹Iturria: Eustat

Hauk dira Euskadiren eta Singapurren artean esportatzen eta inportatzen diren produktu garrantzitsuenak.

²⁸ Euskadiren eta Singapurren arteko merkataritza: EUSTAT: <https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish>


9. taula: Euskadik 2018an Singapurrera esportatutako produktu garrantzitsuenak

TARIC	Milaka EURO	%
Guztira	69.918	% 100,00
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	33.640	% 48,11
27 Erregai mineralak	9.840	% 14,07
73 Galdaragintzako manufakturak	7.190	% 10,28
72 Galdaragintza, burdina eta altzairua	6.348	%9,08
87 Automobilak	5.179	% 7,41
85 Makinak eta gailu elektrikoak	2.260	% 3,23
83 Metalezko manufakturak	1.573	% 2,25
40 Kautxua eta bere manufakturak	465	% 0,67
22 Edariak	440	% 0,63
29 Produktu kimiko organikoak	410	% 0,59
94 Altzariak	258	% 0,37
82 Tresnak eta lanabesak	234	% 0,33
90 Optikako instrumentuak	218	% 0,31
88 Aireko edo espazioko nabigazioa	168	% 0,24
42 Larruaren manufakturak	145	% 0,21

Iturria: Datacomex

10. taula: Euskadik 2018an Singapurretik inportatutako produktu garrantzitsuenak


Taric	Milaka EURO	%
Guztira	14.600	% 100,00
40 Kautxua eta bere manufakturak	10.386	% 71,14
39 Materia plastikoak	1.867	% 12,79
85 Makinak eta gailu elektrikoak	843	% 5,77
84 Ekipo-ondasun mekanikoak	668	% 4,58
90 Optikako instrumentuak	277	% 1,90
87 Automobilak	163	% 1,12
74 Kobrea eta bere manufakturak	118	% 0,81
49 Produktu editorialak	115	% 0,79
99 Sailkatu gabeak	48	% 0,33
88 Aireko edo espazioko nabigazioa	47	% 0,32

Iturria: Datacomex

Grafiko honetan aztertzen da Euskaditik Singapurrerako esportazioen pisua, Estatutik Singapurrera egiten diren guztizko esportazioekin alderatuta (Espainiatik Singapurrerako Urteko Karga Baliokidearen %), eta, gainera, datu hori alderatzen da euskal esportazioek Espainiako guztizko esportazioetan duten pisu espezifikoarekin erreferentziatuta hartuta (Espainiako Urteko Karga Baliokidearen %).



4. grafikoa: Euskadiren pisua Espainiako esportazioetan (%)



Iturria: Datacomex

Hurrengo taulan ikusten da 2013tik 2019ra bitartean Espainiatik Singapurrera joandako esportazioen %19,8, batez beste, Euskaditik joan zirela, neurri handi batean urte askotan **produktu energetikoen** esportazioen ia % 100a hemendik egin zirelako (sektoreko batez bestekoa % 87,9koa izan zen). Azpimarratu behar da azken urteotan bilakaera negatiboa izan dela, energia sektoreko bolumenak gorabehera, batez ere ekipo-ondasunetan, erdi-manufakturretan eta automobil sektorean.

11. taula: Euskaditik Singapurrerako esportazioen pisua Espainiako esportazioetan (%) sektoreka³⁰

Portzentajea	2013-2018	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Aukeratutako guztizkoa	% 19,8	% 30,6	% 44,2	% 12,6	% 10,1	% 8,7	% 7,1
1 - ELIKADURA, EDARIAK ETA TABAKOA	% 1,0	% 0,6	% 0,9	% 1,1	% 1,3	% 1,0	% 1,1
2 - PRODUKTU ENERGETIKOAK	% 87,9	% 95,7	% 98,9	% 44,5	% 0,0	% 0,1	% 95,6
3 - LEHENGAIK	% 0,7	% 1,5	% 2,5	% 0,0	% 0,2	% 0,1	% 0,0
5 - EKIPO-ONDASUNAK	% 13,1	% 13,7	% 18,8	% 18,9	% 19,7	% 14,0	% 6,8
4 - ERDI-MANUFAKTURAK	% 15,9	% 22,5	% 30,2	% 9,6	% 7,2	% 6,8	% 8,2
6 - AUTOMOBIL SEKTOREA	% 14,3	% 45,6	% 26,6	% 14,0	% 9,6	% 16,1	% 5,3
7 - KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	% 10,2	% 14,5	% 7,6	% 8,2	% 7,7	% 13,9	% 10,2
8 - KONTSUMOKO MANUFAKTURAK	% 0,9	% 0,7	% 0,6	% 0,6	% 1,3	% 1,2	% 0,9
9 - BESTE MERKADURIA BATZUK	% 1,9	% 0,6	% 0,3	% 2,4	% 2,3	% 10,8	% 2,0

Iturria: Datacomex

Singapurrek erdi-manufaktura eta ekipo-ondasun bolumen handiak inportatzen ditu oro har, beraz, esan liteke Euskadiko esportazioek badutela hazteko gaitasuna sektore horietan, non badakigun lehiakorrak garea. Hona hemen Espainiako eta Euskadiko esportazioen ranking-a, gorago aipatutakoaren erakusgarri.

³⁰ Datacomex: Exportaciones Euskadi a Singapur: http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx



12. taula: Espainiatik eta Euskaditik Singapurrera esportatutako produktuen ranking-a, milaka eurotan (2015-2018)

ESPAINIA	2015-2018	EUSKADI	2015-2018
Aukeratutako guztizkoa	2.667.859	Aukeratutako guztizkoa	244.667
5 EKIPO-ONDASUNAK	1.207.780	5 EKIPO-ONDASUNAK	145.604
4 ERDI-MANUFATURAK	649.052	4 ERDI-MANUFATURAK	52.317
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	271.293	2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	24.666
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	269.289	6 AUTOMOBIL SEKTOREA	12.659
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	130.057	1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	3.028
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	72.499	8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	2.711
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	32.100	7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	2.684
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	27.689	9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	992
3 LEHENGAIK	8.096	3 LEHENGAIK	6

Iturria: Datacomex

Azkenik, CIVEXek emandako datuen arabera, 44 euskal enpresak esportatzen dute Singapurrera³¹.

6.2. Euskadiren posizionamendua

Aurreko atalean azpimarratu den bezala, euskal esportazioek Espainiako guztizko esportazioetan izan duten pisua oso desberdina izan da eta menpekotasun handia izan dute esportazio batzuekiko, hala nola esportazio energetikoekiko, batik bat, 2009tik 2012ra bitartean. Gainera, Euskaditik Singapurrerako esportazioen kuota nahiko baxua da, oro har.

Segidan, azken urtean Euskadik ASEAN eremuko guztizko inportazioetan izan duen kuota (azken datuak 2017koak dira) ageri da, eta azken 5 urteetan izan duen bilakaera.

Uste dugu Singapur plataforma egokia dela ASEAN eremuan sartzeko. Horregatik erakusten dugu hemen Euskadik ASEAN eremuko inportazioetan duen posizionamendua, produktuka sailkatuta (kasu honetan, kontuan hartu dira Filipinak, Indonesia, Malaysia, Thailandia, Singapur eta Vietnam).

³¹ CIVEX: Empresas vascas exportadoras a Singapur: <http://www.industria.ejv.euskadi.net/x76aAppWar/buscador/buscadorSimple?locale=es>


13. taula: Kuota ranking-a sektoreka 2017an, eta kuoten bilakaeraren ranking-a hazkundearen arabera, 2002-2017

SECTORES	2017	SECTORES	Evol. 2017-2002	Evol. 2017-2012
73A Tubos y accesorios	0,27%	87A Vehículos automóviles	0,22%	0,09%
87A Vehículos automóviles	0,22%	84A Calderas y turbinas	0,08%	0,08%
72B Barras y perfiles acero común	0,12%	85B Transformadores	0,07%	0,07%
85B Transformadores	0,12%	76 Aluminio y manufacturas	0,08%	0,07%
85A Motores y generadores eléctricos	0,11%	87B Vehículos para transporte mercancías	-0,35%	0,07%
87B Vehículos para transporte mercancías	0,09%	47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,04%	0,03%
84D Grúas y aparatos elevacion	0,09%	87C Partes y accesorios	-0,02%	0,03%
84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	0,08%	15 Grasas y aceites	0,02%	0,02%
76 Aluminio y manufacturas	0,08%	44-46 Madera y sus manufacturas	0,01%	0,01%
84C Máquinas herramienta para trabajar metal	0,08%	22 Bebidas	0,02%	0,01%
84A Calderas y turbinas	0,08%	39 Materias plásticas	0,01%	0,01%
73B Depósitos, recipientes	0,07%	73B Depósitos, recipientes	-0,18%	0,01%
83 Manufacturas metálicas	0,07%	40 Caucho y manufacturas	0,01%	0,01%
93 Armas y municiones	0,07%	86 Vehículos de vías férreas	-0,05%	0,00%
84F Otra maquinaria mecánica	0,05%	74 Cobre y sus manufacturas	0,00%	0,00%
47-49 Pasta, papel y sus manufacturas	0,05%	90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	-0,03%	0,00%
87C Partes y accesorios	0,04%	28-38 Productos químicos	0,00%	0,00%
68-70 Piedra, cementos y vidrio	0,03%	73D Otras manufacturas de hierro o de acero	-0,09%	0,00%
22 Bebidas	0,03%	85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,00%	0,00%
1 a 5 Productos del reino animal	0,03%	82 Herramientas y útiles	-0,06%	0,00%
82 Herramientas y útiles	0,03%	16-24 (-22) Productos alimenticios	-0,01%	0,00%
73C Cables, alambre, tornillería, muelles	0,02%	93 Armas y municiones	-0,33%	0,00%
15 Grasas y aceites	0,02%	71 Joyería y bisutería	0,00%	0,00%
84B Motores	0,02%	72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	0,00%
73D Otras manufacturas de hierro o de acero	0,02%	6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	0,00%
28-38 Productos químicos	0,02%	99 No clasificados	-0,01%	0,00%
40 Caucho y manufacturas	0,02%	97 XXI Objetos de arte	0,00%	0,00%
87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,01%	94-96 Muebles, juguetes, otras	-0,05%	0,00%
99 No clasificados	0,01%	88 Navegación aérea o espacial	0,00%	0,00%
72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	0,01%	85C Baterías, acumuladores, electroimanes	-0,01%	0,00%
39 Materias plásticas	0,01%	72A Productos planos acero común	0,00%	0,00%
44-46 Madera y sus manufacturas	0,01%	41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	0,00%
85E Otros bienes de equipo eléctricos	0,01%	72E Otros de fundición hierro y acero	0,00%	0,00%
90-92 XVIII Aparatos de óptica y precisión	0,01%	75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,00%	0,00%
94-96 Muebles, juguetes, otras	0,01%	89 Navegación marítima o fluvial	-11,34%	-0,01%
89 Navegación marítima o fluvial	0,01%	84B Motores	-0,01%	-0,01%
16-24 (-22) Productos alimenticios	0,01%	85A Motores y generadores eléctricos	0,11%	-0,01%
74 Cobre y sus manufacturas	0,00%	73C Cables, alambre, tornillería, muelles	-0,35%	-0,01%
86 Vehículos de vías férreas	0,00%	1 a 5 Productos del reino animal	-0,07%	-0,01%
85C Baterías, acumuladores, electroimanes	0,00%	84F Otra maquinaria mecánica	-0,01%	-0,02%
88 Navegación aérea o espacial	0,00%	87D Otros del capítulo de vehículos automoviles	0,01%	-0,02%
25-27 Productos minerales	0,00%	83 Manufacturas metálicas	-0,12%	-0,02%
71 Joyería y bisutería	0,00%	84C Máquinas herramienta para trabajar metal	-0,13%	-0,02%
41-43, 50-67 Textiles y sus manufacturas	0,00%	85D Alumbrado	0,00%	-0,03%
85D Alumbrado	0,00%	68-70 Piedra, cementos y vidrio	-0,23%	-0,03%
72C Productos planos acero inoxidable y aleado	0,00%	72D Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	-0,12%	-0,04%
6 a 14 Productos del reino vegetal	0,00%	84D Grúas y aparatos elevacion	-0,07%	-0,05%
75, 78-81 Otros metales y manufacturas	0,00%	25-27 Productos minerales	0,00%	-0,08%
72A Productos planos acero común	0,00%	84E Equipamiento hostelería y aparatos domésticos	0,03%	-0,10%
72E Otros de fundición hierro y acero	0,00%	73A Tubos y accesorios	-0,27%	-0,63%
97 XXI Objetos de arte	0,00%	72B Barras y perfiles acero común	0,01%	-0,74%

Iturria: Agentziak egina Eustat-en eta UN Comtrade-ren datuekin

Euskal esportazioen kuota ez da oso garrantzitsua ezin sektoretan, salbu eta agian hodien eta automobilen partidetan. Segidan aztertuko dugu euskal esportazioek ASEAN eremuan duten posizionamendu lehiakorra, horretarako kontuan hartuz inportazioek 2012-2017 epealdian izan zuten hazkundera produktuka eta Euskadiren kuotak epe horretan izan zuen bilakaera.

Azterketa horretatik ateratzen den matrizeak lau koadrante dauzka, eta bakoitzak egoera desberdin bat islatzen du:


- **Indartsuak:** sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere handitu egin da.
- **Helduak:** inportazioak ez dira handitu sektore hauetan, baina Euskadiren kuota bai.
- **Potentzialak:** sektore hauetan asko handitu dira inportazioak azken 5 urteetan, baina Euskadiko kuota ez da handitu.
- **Interes baxua:** sektore hauetan inportazioak ez dira handitu azken 5 urteetan, eta Euskadiko kuota ere ez.

Aipatzekoa da burdinbideen sektoreko inportazioak hazi egin direla ASEAN eremuan; aldiz, Euskadik ASEAN eremuan duen kuota ez da handitu, eta oso baxua izaten jarraitzen du. Beraz, esan liteke, sektore potentziala dela. Badaude potentziala duten beste sektore batzuk ere, hala nola, ostalaritzako eta etxeko ekipamenduena, altzairu herdoilezinarena,



elikadurarena, metalezko manufacturera eta elebazioarena. Kuotak baxuak izan arren, Euskadi indartsu ageri beste da sektore batzuetan, kuota handiagoa baitu, esaterako automozioarenean, aluminioarenean, eraldatzaileetan eta paperean. Grafiko honetan ikus ditzakegu produktu guztiak:

5. grafikoa: Inportazioen hazkundea 2012-2017



16-24 (-22)	Productos alimenticios	73C	Cables, alambre, tornillería, muelles	85A	Motores y generadores eléctricos
22	Bebidas	73D	Otras manufacturas de hierro o de acero	85B	Transformadores
25-27	Productos minerales	74	Cobre y sus manufacturas	85E	Otros bienes de equipo eléctricos
28-38	Productos químicos	76	Aluminio y manufacturas	86	Vehículos de vías férreas
39	Materias plásticas	82	Herramientas y útiles	87A	Vehículos automóviles
40	Caucho y manufacturas	83	Manufacturas metálicas	87B	Vehículos para transporte mercancías
47-49	Pasta, papel y sus manufacturas	84B	Motores	87C	Partes y accesorios
72A	Productos planos acero común	84C	Máquinas herramienta para trabajar metal	88	Navegación aérea o espacial
72B	Barras y perfiles acero común	84D	Grúas y aparatos elevación	89	Navegación marítima o fluvial
72D	Barras y perfiles acero inoxidable y aleado	84E	Equipamiento hostelería y aparatos domésticos		
73A	Tubos y accesorios	84F	Otra maquinaria mecánica		

6.3. Aldebiko inbertsioak

BasqueTrade-k emandako datuen arabera, badira 10 euskal enpresa ezarpen kometzialak dituztenak Singapurren. Ezarpen horiek energia, hodi, eraikuntza, finantza eta itsas sektoreetakoak dira, nagusiki. Euskal enpresak Singapurren kokatzen badira da, batik bat, ASEAN eremuan interesaturik daudelako, eta ez hainbeste Singapurren, nahiz eta badiren salbuespen batzuk.

Euskadin oso gutxi dira partaide bezala Singapurreko bazkideak dituzten enpresak, batez ere bi herrialdeak urrun daudelako eta ez dutelako harreman komertzial handirik. Gaur egun, Bureau Van Dick bulegoaren arabera, horrelako lau enpresa baino ez daude Euskadin, horietako bi sortu berriak.



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

Hona hemen Singapurreko BPGaren banaketa sektoreka:

14. taula: BPGaren banaketa sektoreka, 2019³².

Sektore ekonomiko eta industrialak 2019	Portzentajea	Milioi SGD	Milioi euro
Manufakturak	% 20,90	\$106.081,71	69.155,01 €
Eraikuntza	% 3,70	\$18.780,02	12.242,75 €
Zerbitzu publikoak	% 1,20	\$6.090,82	3.970,62 €
Handizkako salmenta & txikizkako merkataritza	% 17,30	\$87.809,26	57.243,14 €
Garraioa eta biltegiatzea	% 6,70	\$34.007,06	22.169,31 €
Ostatua & otordu zerbitzuak	% 2,10	\$10.658,93	6.948,59 €
Informazioa eta komunikazioak	% 4,30	\$21.825,42	14.228,06 €
Finantzak eta aseguruak	% 13,90	\$70.551,95	45.993,05 €
Zerbitzuak eta negozioa	% 14,80	\$75.120,06	48.971,01 €
Beste zerbitzu eta industria batzuk	% 11,30	\$57.355,18	37.390,03 €
Etxebizitzen jabetza	% 3,80	\$19.287,58	12.573,64 €
2019ko BPGa	% 100	\$507.568,00	330.885,22 €

Kanbio-tasa: 1 € = 1,534 SGD // 1 SGD = 0,6518 €

Iturria: Singstat.gov

7.2. Negozio-aukerak

Kanpo merkataritzaren kapituluan dagoeneko aipatu dugu zein sektoretan nabarmentzen den euskal industria eta zein sektoretan daukan inportazio gehien Singapurrek, batik bat, makineria mekanikoan eta ekipo-ondasunetan. Singapur da, alde handiz, EBk Asia Hego-ekialdean daukan bazkide komertzial garrantzitsuena, 53.000 milioi eurotik gorako merkatu-gaien aldeko merkataritzarekin eta 51.000 milioi euroko zerbitzu-merkataritzarekin. EBko 10.000tik gora enpresak daukate ezarpenak Singapurren, eta Pazifikorako hedapen-plataforma gisa baliatzen dute. Orobat Singapur da Europak Asian egiten dituen inbertsioen lehen jomuga, eta aipatzekoa da inbertsio horiek asko hazi direla azken urteotan: aldeko inbertsioen bolumen konbinatua 344.000 milioi eurora iritsi zen 2017an³³.

Arestiko inportazioek Singapurren izan duten bilakaerari erreparatuta, ikusten da zeintzuk diren sektore indartsuak edo potentziala duten sektoreak, hau da, aukera-nitxoak:

- **Abiazioa eta defentsa:** "Etorkizuneko hiri aeroespazial"³⁴ bezala izendatua, Singapurrek Asiako ekosistema zabal eta anitzenetako bat dauka, 130etik gora enpresa aeroespazialekin. Hazten ari den satelite-industria bat ere badu, 30 enpresa baino gehiagorekin, horien artean daudelarik enpresa liderrak eta startup espazial berriak.
- **IKTak eta teknologia digitalak ("fintech", merkataritza elektronikoa, hiri eta sare adimendunak):** Singapurrek nazioarteko enpresa teknologiko asko ostatatzen ditu, besteak beste, Google, Facebook edo Alibaba, eta eskualde mailako liderrak ere bai, esaterako, Garena, Grab, Lazada eta Razer. Guztiak daude ekosistema aberats

³² Singstat.gov: GDP Infographic 2019: <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/economy>

³³ Europa.eu: Europako Batzordea: EBren eta Singapurren arteko akordioa 2019ko azaroaren 21ean sartu da indarrean: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/IP_19_6222

³⁴EDB, Our Industries: <https://www.edb.gov.sg/en/our-industries>



batean, zeinak aukerak eskaintzen baitizkie euren arteko lankidetzak garatzeko eta merkataritza-akordioak lotzeko konponbide bideragarri eta berritzaileak eskaintzen dituzten atzerriko enpresek. IBM eta Huawei bezalako enpresa teknologikoei bat egin dute finantza, fabrikazio eta zerbitzuen industrietako Singapurreko enpresek, eskualde mailako konponbide berriak garatu eta eskaintzeko.

- **Energia eta ingurumena** (petrolio, gasa eta ura): Jurong uhartea Singapurreko pieza zentrala da birfintze, petrokimika eta produktu kimiko espezializatuekin lotutako jardueretarako. Bere azpiegitura integratuak estuki lotzen ditu bezeroak eta hornitzaileak, askotan, literalki, hodian bidez. Singapur Asiako liderra da petrolio eta gas (O&G) sektoreko ekipo eta zerbitzuen eskaintzan, eta itsasoko ingeniariak eta “*offshore*” arloetako (M&OE) 3.000tik gora enpresa ostatatzen ditu.
- **Osasun arreta, “medteck” eta bio-teknologia**: Singapur eskualdeko epizentroa da zientzia bio-medikoei dagokien, horregatik, enpresa askok berau aukeratzen dute Asiako arreta medikoko premiei erantzuteko produktu berriak garatu eta ekoizteko. Enpresek ingurune ezin hobea aurkitzen dute, bertan baitaude azpiegituraz eta talentu eta berrikuntzaz hornitutako ekosistema bat. GlaxoSmithKline, MSD eta Roche bezalako enpresek Singapurren oinarritu dituzte euren merkataritza-jarduerak, bai eta hornidura-katearen kudeaketa, araudi mailako gaiak eta gai medikoei lotutako arloak.

Gainera, badaude beste sektore batzuk, zeintzuetan Euskadi oso lehiakorra den eta Singapurren eskaera gero eta handiagoa den. Adibidez, makina-erreminta, ekipo-ondasunak eta beste erdi-manufaktura batzuk.


Jarraian ikusiko ditugu Singapurreko inportazio partida handienak, Euskadik esportatzaile gisa dauzkan indar-guneetan oinarriturik. Euskadiko esportazio bolumenaren arabera lehen 20 partidak nabarmendu dira, Singapurrek partida horietan egiten duen inportazio kopurua puntuatuta. Koloreak erakusten du zenbateraino dagoen hurbil Singapurreko inportazioen ranking-eko lehen postutik, ordena honetan: berdea-horia-gorria.

Euskadik gehien esportatzen dituen 6 partiden artean daude Singapurrek gehien inportatzen dituen 3 partidak:

- 1) 85 - Gailu eta material elektrikoak eta haien zatiak
- 2) 27 - Erregai mineralak, olio mineralak eta haietatik destilatutako produktuak
- 3) 84 - Ekipo-ondasun mekanikoak

15. taula: Euskadiko esportazioen ranking-a vs Singapurren inportazio interesak

Partida	Euskadiko esportazioen bolumena guztira	Singapurreko inportazioen bolumena guztira	Singapurreko inportazioen posizioa
87 AUTOMOBILAK	\$6.848.133.889	\$5.429.300.176	9
84 MAKINAK ETA GAILU MEKANIKOAK	\$3.908.653.112	\$53.090.250.461	3
27 ERREGAIK. OLIO MINERALAK	\$3.072.276.737	\$87.875.978.262	2
73 BURDINAREN GALDAKETAKO MANUFATURAK	\$2.190.933.096	\$3.440.335.873	12
72 GALDARAGINTZA, BURDINA ETA ALTZAIRUA	\$2.050.193.921	\$2.935.863.750	14
85 GAILU ETA MATERIAL ELEKTRIKOAK	\$1.585.791.876	\$101.603.823.833	1
40 KAUTXUA ETA BERE MANUFATURAK	\$1.400.657.396	\$1.336.160.113	20
76 ALUMINIOA ETA BERE MANUFATURAK	\$708.009.238	\$1.211.108.318	23
48 PAPER, KARTOIA ETA BEREN MANUFATURAK	\$661.894.410	\$1.675.392.687	19
82 LANABESAK ETA AIZTOAK	\$571.603.547	\$929.269.777	30
86 BURDINBIDEETAKO IBILGAILUAK ETA MATERIALAK	\$539.959.045	\$286.025.257	60
74 KOBREA ETA BERE MANUFATURAK	\$442.587.392	\$973.032.681	28



Partida	Euskadiko esportazioen bolumena guztira	Singapurreko inportazioen bolumena guztira	Singapurreko inportazioen posizioa
39 PLASTIKOZKO LEHENGAIK ETA BEREN MANUFATURAK	\$393.731.963	\$8.722.820.770	7
83 BURDINAZKO ASKOTARIKO MANUFATURAK	\$387.511.079	\$445.793.927	47
29 PRODUKTU KIMIKO ORGANIKOAK	\$268.276.688	\$6.941.692.182	8
03 ARRAIN KRUSTAZEOAK	\$263.762.196	\$871.002.130	32
22 MOTA GUZTIETAKO EDARIAK	\$258.064.100	\$2.909.639.863	16
38 BESTE PRODUKTU KIMIKO BATZUK	\$202.872.913	\$5.155.571.992	10
90 MEDIKUNTZARAKO GAILU OPTIKOAK	\$190.089.665	\$12.097.277.529	5
88 HEGAZKINAK; IBILGAILU ESPAZIALAK	\$180.353.522	\$11.765.818.685	6

Iturria: Agentziak egina Comtrade eta Datacomex-en bitartez

Jarraian, datozen urteetarako planifikatu diren hainbat inbertsio proiektu nabarmenduko ditugu, negozio-aukera izan daitezkeenak atzerriko enpresentzat³⁵:

- Singapurreko Changi aireportuko 5. terminalaren eta hirugarren pistaren eraikuntza, 2030. inguruan bukatuko dena. Kalkulatu da 10 mila milioi USDeko kostua izango duela eta 10 urte beharko direla proiektua gauzatzeko. <https://www.airport-technology.com/projects/terminal-5-changi-international-airport/>
- Tuas-eko terminala azken belaunaldiko portu bihurtzea; 1 eta 2 faseetako lizitazioak esleituta daude dagoeneko, eta beste bi fase lizitatuko dira portua 2040rako bukatzeko. <https://www.mpa.gov.sg/web/portal/home/media-centre/news-releases/detail/a2860498-ff4f-4e9c-88ac-139653ae7541>
- Tunel sakonaren estolderia-sistema eraikitzeke 2. fasea, 2025ean bukatuko omen dena. <https://www.pub.gov.sg/dtss/phase2>
- 2030erako bost ospitale publiko berri eta hamabi poliklinika gehiago eraikiko dira, eta pertsona nagusientzako egoitza mordo bat ere bai. <https://sg.news.yahoo.com/12-th-public-general-hospital-to-be-built-in-the-east-by-2030-gan-kim-yong-082920147.html>
- Inbertsioak egingo dira uraren teknologia aurreratuan eta iragazte eta arazte makina eta gailuen azpiegituretan, hondakin-uren birziklapen eta tratamendurako teknologietan eta gatzgabetze teknologietan. Ingurumenaren eta uraren industria hazkunde-industria garrantzitsua da Singapurrentzat. 2006tik, gobernua 476 milioi dolar estatubatuar bideratu ditu puntako teknologiak sustatzeko eta industriaren hazkundera lideratzeko. Gaur egun, Singapur munduko zentro hidroelektriko handienetako bat da, eta uraren sektoreko 180 enpresaz osatutako ekosistema bizi eta oparoa du, uraren balio-kate osoa barne hartzen duten 20 ikerketa-zentro baino gehiagorekin. <https://www.pub.gov.sg/watersupply/singaporewaterstory>
- 8 milioi dolar estatubatuarreko proiektu pilotua ur-gaineko eguzki xafren bideragarritasuna aztertzeke; <https://www.pv-magazine.com/2020/05/12/a-25-year-power-purchase-agreement-for-60-mw-of-floating-solar-in-singapore/>
- Singapore-Kuala Lumpur High Speed Rail (HSR). Abiadura handiko trena, bi hiriak 90 minutu baino gutxiagoko ibilbide batekin lotuko dituena (gaur egun 4-6 ordu behar dira errepidez). Proiektua 2010ean iragarri zen eta, hainbat egokitzapen egin ondoren, adostu da 2031n hasiko direla trena eraikitzeke lanak. <https://www.railway-technology.com/projects/kuala-lumpur-singapore-high-speed-rail/>

³⁵ Export.gov: Singapore Market Opportunities: <https://www.export.gov/apex/article2?id=Singapore-Market-Opportunities>



8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidesunak

Singapur Munduko Merkataritza Erakundearen (MME) kide fundatzailea da 1995eko urtarrietik. Bere babesa eman zion Doha-ren Garapen Agendari (DDA) 2001eko azaroan, eta harrezkero eutsi egin dio merkataritza multilateraleko sistemarekiko konpromisoari, kide aktiboa delarik MME barruan.³⁷

Singapurrek paper garrantzitsua izan du ASEAN(www.aseansec.org)-Asia Hego-ekialdeko Nazio Elkartearen sorrerantz eta garapenean. Elkarte horretan 10 herrialde daude (Myanmar, Thailandia, Laos, Kanbodia, Vietnam, Malaysia, Singapur, Brunei, Indonesia eta Filipinak), 600 milioi pertsonako biztanleria dutenak. Eskualde mailako elkarte hori 1967an sortu zen, Singapur izan zelarik bost herrialde fundatzaileetako bat³⁸.

Gainera, Singapur eragile garrantzitsua izan da ASEAN ondasun, zerbitzu, inbertsio, langile kualifikatu eta kapitalen zirkulazio eta mugimendu libreko eremu bihurtzeko prozesuan, eta ASEANen eta inguruko potentzia komertzial garrantzitsuenen arteko akordio komertzialak bultzatu ditu. Era berean, APEC-eko (Asia-Pacific Economic Cooperation) eta TPP-ko (Trans-Pacific Partnership, Elkarte Ekonomiko TransPazifikoa) kide da.

Singapurrentzat oso garrantzitsuak dira Malaysiarekiko eta Indonesiarekiko harremanak, arrazoi geografikoengatik, halere, herrialde horietako barne-politikak eragina izan du haiekiko aldeko harremanetan. Singapurrek lotura estuak dauzka Europako herrialde askorekin, besteak beste, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batuekin, eta harremanak partekatzen ditu haiekin “Five Power Defence Arrangements” (FDPA) delakoen bitartez, Malaysia, Australia eta Zeelanda Berriarekin batera.

Singapurren nazioarteko akordio eta harremanen ikuspegi xeheagoa izateko, jo esteka honetara: <https://www.mfa.gov.sg/SINGAPORES-FOREIGN-POLICY/Countries-and-Regions>

8.2. Merkataritza-akordioak

ASEAN eskualdeko negozio-zentroa den aldetik, Singapurrek merkataritza libreko aldeko hainbat akordio (Free Trade Agreements - FTA) ditu, eta hauek dira garrantzitsuenak³⁹:


Aldeko akordioak

- Txinaren eta Singapurren arteko Merkataritza Libreko Ituna (CSFTA)
- Europar Batasunaren eta Singapurren arteko merkataritza libreko akordioa (EUSFTA)
- Indiaren eta Singapurren arteko Lankidetzako Ekonomiko Integraleko akordioa (CECA)
- Japoniaren eta Singapurren arteko Elkarte Ekonomikoaren Akordioa (JSEPA)
- Korearen eta Singapurren arteko merkataritza libreko akordioa (KSFTA)
- Singapurren eta Australiaren arteko merkataritza libreko akordioa (SAFTA)

³⁷ ICEX, Resumen de las relaciones económicas internacionales de Singapur: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/relaciones-economicas-internacionales/index.html?idPais=SG>

³⁸ ASEAN, Establishment. <https://asean.org/asean/about-asean/overview/>

³⁹ Enterprise SG: Singapore FTAs: https://www.enterprisesg.gov.sg/non-financial-assistance/for-singapore-companies/free-trade-agreements/ftas/singapore-ftas?gclid=Cj0KCQjwzZj2BRDVARIsABs3l9KZ8W0zItp1ncNmXNByWPnvnZb3QD9XXZtBfIVRQJfFgoiNxHQBoaAvShEALw_wcB



- Estatu Batuen eta Singapurren arteko merkataritza libreko akordioa (USSFTA)

ASEAN esparruaren barruko akordioak

- ASEANen, Australiaren eta Zeelanda Berriaren arteko merkataritza libreko eremua (AANZFTA)
- ASEANen eta Txinaren arteko merkataritza libreko eremua (ACFTA)
- ASEANen, Hong Kongen eta Txinaren arteko merkataritza libreko eremua (AHKFTA)
- ASEANen eta Indiaren arteko merkataritza libreko eremua (AIFTA)
- ASEANen eta Japoniaren arteko Elkarte Ekonomiko Integrala (AJCEP)
- ASEANen eta Korearen arteko merkataritza libreko eremua (AKFTA)

Hona hemen Europar Batasunak eta Singapurrek sinatutako Merkataritza Libreko Akordioaren abantaila garrantzitsuenak. Akordio hori 2019ko azaroaren 21ean sartu zen indarrean⁴⁰:

- EBk muga-zergak kenduko dizkio Singapurretik EBra lehenengo urtean sartzen diren produktuen %84ari, eta gainerako %16ari ondoko 3-5 urteko epean.
- Merkaturako sarbide hobeia Singapurren ekoiztutako Asiako elikagaientzat.
- Merkataritzarako beharrezkoak ez diren hesi teknikoak (OTC) kenduko zaizkie Singapur eta EBko esportatzaileei. Neurri hori abantailatsua izango da bi alderdietako sektore askorentzat, hala nola, hauentzat: elektronikak, motordun ibilgailuak, automozio osagaiak, produktu farmazeutikoak, energia berriztagarriak eta haragikiak.
- Merkaturako sarbide hobeia zerbitzu hornitzaileentzat, arau espezifikoak sortuko direlarik inor ez diskriminatzeko eta gardentasuna bermatzeko. Akordio honek zerbitzu-sektore ugari barne hartzen ditu, besteak beste, finantza zerbitzuak, zerbitzu profesionalak, informatika eta harekin lotutako zerbitzuak, ikerketa eta garapena, telekomunikazio zerbitzuak eta turismoarekin lotutako zerbitzuak.
- Kontratazio publikorako aukera gehiago.

⁴⁰ Enterprises SG: Key benefits to EUSFTA: <https://www.enterprisesg.gov.sg/non-financial-assistance/for-singapore-companies/free-trade-agreements/ftas/singapore-ftas/eusfta>



9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

9.1. Herrialdearen arriskua

16. taula: COFACEren balorazioa ⁴¹

HERRIALDEA	HERRIALDEAREN ARRISKUA	NEGOZIOETARAKO GIROA	OHARRAK
SINGAPUR	A2	A1	<p>INDAR-GUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Prezioekin zerikusirik ez duen lehiakortasun handia • Balio erantsi handiko sektore helduak (teknologia berriak, finantzak, produktu kimikoak, produktu farmazeutikoak) • Ondasunen eta finantza zerbitzuen garraio eta merkataritzako (airekoa eta itsasokoa) zentro nagusia • AIZ-ren sarrera handiak zerga-araubide abantailatsuari, egonkortasun politikoari eta enpresentzako giro bikainari esker • Asiako kapital esportatzaile garrantzitsuena da bere funts subirano handien bitartez <p>AHULUNEAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Esportazio eta inportazioekiko menpekotasuna (energia eta elikagaiak). • Esku-lan kualifikatu gutxi, etxebizitza eskasia eta biztanleria zahartua. • Adierazpen askatasun mugatua. • Kaltebera da Txinako ekonomiaren desazelerazioarekiko • Txinaren eta Amerikaren arteko tentsio politikoek diplomatikoki lerrokatzera behartu dezakete

Aurrerantzean ere mundu mailako merkataritzako arriskuak nagusi izango dira ekonomian

Covid-19aren agerraldia baino lehen, espero zen Singapurreko ekonomiak atzeraldia saihestuko zuela, eta apur bat haziko zela 2020an. Singapurrekoa ekonomia txiki eta irekia da, non inportazioek eta esportazioek BPGaren % 150 eta % 176 hartzen baitute, hurrenez hurren. Horregatik, mundu mailako ziklo ekonomikoek eta nazioarteko merkataritzaren bilakaerak eragin handia dute bere ekonomian. Pandemia globalaren ondorio larriez gain, 2020an orobat eragina izango dute esportazioen errendimenduan Hong Kongeko protesten ondorio ekonomikoek, Txinako ekonomiaren desazelerazioak eta Txinaren eta Estatu Batuen arteko gerrak eragindako ziurgabetasunak.

Manufaktura izango da esportazioen murrizketak gogorren kolpatuko duen industrietako bat, eta horren barruan, bereziki, elektronika eta makineria, zeintzuek esportazio guztien erdia ordezkatzeko baitute, eta zeintzuk dagoeneko hasi baitira produkzioaren murrizketak jasaten. Horren erakusgarri da manufaktura eta elektronika sektoreetako PMI indizea (*“Purchasing Manager Index”*), sekulako gainbehera izan duena 2020an, apirilean azken 11 urteetako daturik baxuenak erregistratzeraino.

Halere, farmazeutika, finantza, ingeniariaritzaren aurreratu eta petrolioaren birfintze sektoreetako ekoizpena eta esportazioa handitu egin dira 2020ko lehen hiruhilekoan, eta horrek beheranzko joera motelduko du, manufaktura eta elektronika industrien beherakadak partzialki edo osoki konpentsatuz.

⁴¹ HERRIALDEAREN ARRISKUAREN ETA NEGOZIOETARAKO GIROAREN ANALISIA: Horrela, arrisku orokorra kalkulatzeko, enpresa-faktore espezifikokoak eta enpresaren herrialdeari dagozkion faktoreak konbinatzen ditu. Gure analisiak zazpi mailako sailkapen bat erabiltzen du, arrisku txikienetik handienara doana: A1, A2, A3, A4, B, C eta D.



Hong Kongeko egoera politiko asaldatua dela medio, enpresa asko (bereziki finantza sektorekoak) Singapurren kokatu dira, eta horrek AIZ sustatzen jarraituko du, zeina BPGaren % 27 ingurukoa baita gaur egun (maila altua herrialde garatuen estandarretarako). AIZaren gorakadak eta hiri-estatuak atzerriko talentua erakartzeko duen joerak biztanleriaren dentsitatea handitzen jarraituko dute (dagoeneko handia dena), horregatik, baliteke arriskua egotea higiezin burbuila bat sortzeko; agintariak arazo horri aurre egiten ari dira finantza arloetako araudiak eta lurzoru urbanistikoaren kontrolerako politikak gogortuz.

Kontsumo pribatuak -BPGaren % 35 ingurukoa denak- indartsu jarraituko du soldaten hazkunde sostengatuari eta langabezia-tasa baxuari esker. 2019ko bigarren hiruhilekoko desazelerazio harrigarri bortitzari erantzuteko, moneta-agintaritzak erabaki zuen astirotea Singapurreko dolarrak harekin erlazionatutako beste dibisekiko balioa galtzeko duen abiadura, horixe izan zelarik 3 urtean eginiko lehen moneta-malgutzea.

2020ko maiatzera arte, gobernuak injekzio ekonomikoak egiteko lau neurri-multzo iragarri ditu, guztira 90 mila milioi SGD baino gehiagokoak (57,6 mila milioi €), eta urteko aurrekontuaren erdia baino gehiago bideratu du injekzio horietara. Gainera, Singapurreko historia laburrean bigarren aldiz erabili dira erreserba ekonomikoak; azken aldia 2008ko finantza-krisian izan zen, baina orduan askoz ere erreserba gutxiago erabili ziren.

Soberakin handiekin finantzatzen da eraldaketa ekonomikoa

Kontu korrontean BPGaren % 16ko superabita eta % 25eko superabit komertziala duelarik, Singapurrek posizio indartsua du kanpora begira. Egia da hazkundera aparta izan dela esportazioei esker, baina kanpo-eskaerarekiko menpekotasun hori dela medio, gerta liteke ekonomia manipulagaitzagoa izatea desglobalizazioak, politika komertzial ziurgabeek eta hazkunde global motelak markatutako testuinguru batean.

Hainbat urtez zerga-superabita metatu ondoren, erreserba fiskal handiak sortu dira (kalkulatzen da BPGaren % 300 ingurukoak direla), eta gobernuak horiek baliatu nahi ditu defizitak eta egungoa bezalako krisiak finantzatzeko. Marjina horri eta jarraitutasun politikoari esker, agintariek aukera dute gastua politika jakin batzuetara bideratzeko, adibidez, lan arloko gaikuntzara eta ingurumen arloko programetara.

Teknokrata belaunaldi berri bat egonkortasun politikoa sendotzeko.

Herri Ekintza Alderdia (PAP) Singapurreko gobernuan egon da herrialdea independizatu zenetik, eta bermatuta dauka agintean jarraitzea. Bere inguruko bizilagunei ez bezala, berme horrek egonkortasun politikoa ematen dio eta, beraz, jomuga paregabea bihurtu da atzerriko inbertsioarentzat. Jarraitutasun politikoak, itxurazko ustelkeria ezak eta politikak diseinatzeko ikuspegi teknokratikoak munduko ekonomia oparoenetako bat bihurtu dute Singapur. Ondo integratuta dagoenez munduko hornikuntza-kateetan, badituenez abangoardiako portu-azpiegiturak eta baita ere burokrazia azkarra, bigarren postuan dago Munduko Bankuak negozioak egiteko erraztasunaren arabera egiten duen sailkapenean.⁴²

Covid-19aren egoerak eragindako arrisku ekonomikoak

2020ko lehen hiruhilekoan, Singapurreko ekonomiak urte arteko % 0,7ko beherakada izan zuen, 2019ko azken hiruhilekoan izandako % 1eko hazkunderaren aldean. Hiruhilerik behingo datu hori eguneratu eta urtaroaren arabera egokitu ondoren, joerak berdin jarraituko balu, ekonomia % 4,7 uzkurtuko litzateke 2020an⁴³. Horregatik, Merkataritza

⁴² COFACE: Country Risks Singapore: <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Singapore>

⁴³ Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI downgrades 2020 GDP Growth Forecast to “-7.0 to -4.0 Per Cent”. https://www.mti.gov.sg/-/media/MTI/Resources/Economic-Survey-of-Singapore/2020/Economic-Survey-of-Singapore-First-Quarter-2020/PR_1Q20.pdf



eta Industria Ministerioak (MTI) erabaki du bere aurreikuspen ekonomikoak berrikustea, eta kalkulatu du BPGa % -7 eta % -4 bitartean kokatuko dela 2020an.

Enpleguaren datuei dagokienez, Singapurreko Lan Ministerioak (MOM) iragarri du enpleguak (etxeko enplegua kontuan hartu gabe) beherakada handia erregistratu duela SARS gaitzaren krisia gertatu denetik, 2020ko lehen hiruhilekoan 20.000 lanpostu inguru galdu baitira. Hala ere, martxoko hasierako langabezia-tasa % 2,4 ingurukoa izan zen, 2019ko batez bestekoa baino soilik % 0,1 handiagoa⁴⁴. NDFk kalkulatu du langabezia-tasa % 0,2 handituko dela 2020an (aurreko urtearekin alderatuta)⁴⁵.

COVID-19aren eragina jasan duten sektore garrantzitsuak

Gorago aipatu den bezala, aurreikusten da manufakturarena izango dela pandemiak eta nazioarteko eskaeraren jaitsierak gogorren kolpatuko duen sektorea. Hala ere, baliteke farmazia sektorea gai izatea elektronikak eta beste azpi-sektore batzuek *a priori* jasango duten beherakada bortitza konpentsatzeko.

Turismoa da Covid-19aren pandemiak gogorren kolpatu duen beste sektoreetako bat. Singapurrek 19 milioitik gora bisitari jaso zituen 2019an, eta bisitari gehien jasotzen dituzten mundu osoko hirien top 10-en zerrendan egon da azken urteotan. Ekonomiari erreparatuta, turismoak 30 mila milioi SGD inguru (19 mila milioi €) sortzen ditu urtero, BPG nazionalaren % 4 baino gehiago. 2020ko otsailean, mugak kontrolatzeko lehen neurriak indarrean sartu zirenean, bisitari kopurua % 50 baino gehiago murriztu zen, eta horrek pentsarazi zuen bisitarien beherakada erabatekoa izango zela martxoan eta apirilean, mugak partzialki eta erabat itxi ondoren (turistentzat).⁴⁶

Turista gabeziaren ondoriozko atzerakada ekonomiko horri orobat gehitu behar zaio pandemiak Singapurreko Changi Airport aireportuan izan duen inpaktua. Changi Airport eskualde mailako aireko “HUB” bat da eta ekarpen esanguratsua egiten dio BPG nazionalari. Berriki iragarri da 2. terminala itxita egongo dela datozen 18 hilabeteetan⁴⁷, eta 4. terminala itxita geldituko dela mugagabeki. Kontuan izan behar da aireportuak lau terminal dituela, eta bosgarrena eraikuntza prozesuan dagoela. Bosgarren terminal horrek 10 mila milioi SGD inguruko (6,5 mila milioi €) inbertsioa eskatuko du eta urtean 50 milioi bidaiarientzako gaitasuna izango du.⁴⁸

⁴⁴ Ministry of Manpower, Summary Table: Unemployment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Unemployment-Summary-Table.aspx>

⁴⁵ International Monetary Fund, World Economic Outlook, April 2020: Chapter 1. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>

⁴⁶ Department of Statistics Singapore, Tourism. <https://www.singstat.gov.sg/find-data/search-by-theme/industry/tourism/latest-data>

⁴⁷ Changi Airport Group, Suspension of the Terminal 2 operations. <https://www.changiairport.com/corporate/media-centre/newsroom/suspension-of-T2-operations.html#?tid=relocation>

⁴⁸ Airport Technology, Terminal 5 Changi International Airport. <https://www.airport-technology.com/projects/terminal-5-changi-international-airport/>



10. ONDORIOA

Singapur munduko hirugarren herrialde aberatsena da bere *per capita* BPGaren arabera (58.148 euro), zeina Euskadiko *per capita* BPGa baino % 75 handiagoa baita. Hazten ari den ekonomia bat da, baina badu heldutasun maila bat ere, eta hazkunde mailak BPGaren % 2 ingurukoak izan dira azken urteetan.

Singapur AIZ-en fluxuen munduko laugarren hartzaile handiena izan zen 2018an, Estatu Batuen, Txinaren eta Hong Kongen ondoren. AIZ-en fluxu horiek 77.650 milioi dolar estatubatuarrekoak izan ziren 2018an, eta aurreko urtean, berriz, 75.720 milioi dolar estatubatuarrekoak. Singapurrek inbertsioa erakartzen jarraitzen du bere finantzen egitura indartsuari eta inguruan dauzkan merkatuen potentzial handiari esker, eta horrek erakusten du jarrera proaktiboa duela atzerriko enprekin proiektuak sortzeko eta hartzeko orduan. Ezaugarri hori onuragarria da EAEko konpainientzat.

Singapur itsas-zentroa ere bada, 600 portu eta 120 herrialde baino gehiago konektatzen dituelarik, eta bere kokaleku estrategikoari esker, nazioarteko 37.000 enpresaren egoitza da. Singapurreko finantza-merkatu sendoak finantzaketa-iturri garrantzitsu bihurtu dira zazpi orduko hegaldi-erradioan dagoen lau mila milioi pertsonako merkatuarentzat. Gainera, Singapurrek merkataritza libreko akordio asko ditu sinaturik, eta ASEAN eremuko kide fundatzailea da.

Zerga korporatiboen tasa baxuak (% 17) eta hobari fiskal altuek (lehen 130.00 €-ek % 50 inguruko salbuespena dute)⁴⁹, erraztasunak ematen dituzte enpresen ezarpenerako (% 100eko kapital atzerritarra izan dezakete) eta oro har, negozioak egiteko. Hala, Singapur herrialde aproposa da edozein tamainatako enpresak bertan ezartzeko, batik batik negozioak egin nahi badituzte eskualdeko beste herrialde batzuetan.

Ustelkeriaren aurkako lege eta ikuskapenei esker, ustelkeria maila baxua du; horregatik da AEB, EB eta Japoniako 7.000 korporazio multinazionalen eta India eta Txinako 3.000 konpainiaren egoitza. Singapurrek munduko araudi onuragarrienetakoa du atzerriko enpresentzat, eta munduko ekonomia lehiakorrenen artean kokatzen da.

Singapurreko ekonomiaren ezaugarri nagusiak dira finantza bikainak eta irekiera maila handia, eta horrek esan nahi du menpekotasun handia duela nazioarteko merkataritzarekiko. Halere, BPGa % 0,7 bakarrik hazi zen 2019an, nahiz eta COFACEren aurreikuspena % 2,3koa izan. Desazelerazio hori, 10 urtean jasan duen handiena, AEBen eta Txinaren arteko gerra komertzialari eta elektronika sektoreak izan duen mundu mailako desazelerazio ziklikoari zor zaio batik batik. NDFk 2020ko apirilaren 14an COVID-19aren agerraldiaren ondorioz egin dituen aurreikuspen eguneratuen arabera, espero da BPGa % 3,5 murriztuko dela 2020an, baina % 3ko hazkunde izango duela 2021ean, betiere ekonomia globala suspertzen bada.

Singapur da, alde handiarekin, EBk Asia Hego-ekialdean daukan bazkide komertzial garrantzitsuenen: merkatu-gaien aldeko merkataritza 53.000 milioi eurotik gorakoa da, eta zerbitzuen merkataritza 51.000 milioi eurokoa. EBko 10.000tik gora enpresak dauzkate ezarpenak Singapurren, eta Pazifikorako hedapen-plataforma gisa baliatzen dute. Badaude hainbat sektore, zeintzuetan Euskadi lehiakorra den, eta zeintzuetan Singapurren eskaera gero eta handiagoa den.

Singapurrek erdi-manufaktura eta ekipo-ondasun bolumen handiak inportatzen ditu oro har, beraz, esan liteke Euskadiko esportazioek badutela hazteko gaitasuna sektore horietan.

Badaude beren tamainagatik edo potentzialagatik interesgarriak izan daitezkeen beste sektore batzuk ere: abiazioa eta defentsa, energia eta ingurumena, osasun arreta eta “*medtech*”, IKTak eta teknologia digitalak, eta hainbat azpiegitura

⁴⁹ Inland Revenue Authority of Singapore, Corporate Tax Rates: <https://www.iras.gov.sg/irashome/Quick-Links/Tax-Rates/Corporate-Tax-Rates/>



proiektu, esaterako, Changi-ko aireportuko 5. terminal berria edo Singapurren eta Kuala Lumpur-en arteko abiadura handiko tren.

Ondorioztatu dezakegu Asia hego-ekialdeko merkatua ezezaguna dela oraindik euskal enpresarentzat, nahiz eta badauden garapen-aukera ugari, eta ez bakarrik Singapurren, baita ere Indonesia, Vietnam edo Thailandian; denek dute hazteko potentzial handia, baina euskal presentzia oso mugatua da oraindik.

Hori guztia kontuan izanik, eta munduak 2020an bizi izan duen ziurgabetasun ekonomikoa gorabehera, Singapur toki aproposa da euren erosketa- eta salmenta-jarduerak Asia Hego-ekialdeko eskualdera zabaltzeko nahi dituzten euskal enpresentzat.




11. ERREFERENTZIAK

- Airport Technology, Terminal 5 Changi International Airport. <https://www.airport-technology.com/projects/terminal-5-changi-international-airport/>
- ASEAN, Establishment. <https://asean.org/asean/about-asean/overview/>
- Changi Airport Group, Suspension of the Terminal 2 operations. <https://www.changiairport.com/corporate/media-centre/newsroom/suspension-of-T2-operations.html#?tid=relocation>
- CIVEX: Empresas vascas exportadoras a Singapur: <http://www.industria.ejgv.euskadi.net/x76aAppWar/buscador/buscadorSimple?locale=es>
- COFACE: Country Risks Singapore: <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-Country-Risks/Singapore>
- Euskadi-Singapur merkataritza: EUSTAT: <https://es.eustat.eus/bankupx/pxweb/es/spanish>
- Commodity, Singapore's foreign trade: <https://commodity.com/singapore/>
- Comtrade: <https://comtrade.un.org/>
- Datacomex: Exportaciones Euskadi a Singapur: http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx
- Department of Statistics Singapore, Singapore Consumer Price Index. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/consumer-price-index>
- Department of Statistics Singapore, Tourism. <https://www.singstat.gov.sg/find-data/search-by-theme/industry/tourism/latest-data>
- Doing Business Worldbank. <https://www.doingbusiness.org/content/dam/doingBusiness/country/s/singapore/SGP.pdf>
- EDB, Our Industries: <https://www.edb.gov.sg/en/our-industries>
- Enterprise SG: Singapore FTAs: https://www.enterprisesg.gov.sg/non-financial-assistance/for-singapore-companies/free-trade-agreements/ftas/singapore-ftas?gclid=Cj0KCQjwzZj2BRDVARIsABs3l9KZ8W0zItp1ncNmXNByWPnvnZb3QD9XXZtBfIVRQJfFgojNxHQBoaAvShEALw_wcB
- Enterprise Singapore, Free Trade Agreements (FTAs). <https://www.enterprisesg.gov.sg/non-financial-assistance/for-singapore-companies/free-trade-agreements/ftas/overview>
- Enterprises SG: Key benefits to EUSFTA: <https://www.enterprisesg.gov.sg/non-financial-assistance/for-singapore-companies/free-trade-agreements/ftas/singapore-ftas/eusfta>
- Intereseko herrialdeei buruzko BasqueTrade-ren azterlana. Adimen Lehiakorreko Unitatea, 2018ko iraila.
- Europa.eu: Europar Batasuna: EBren eta Singapurren arteko akordioa 2019ko azaroaren 21ean sartu da indarrean: https://ec.europa.eu/commission/presscorner/detail/es/IP_19_6222



- Eustat, Giza garapenaren indizea.
<https://www.eustat.eus/elementos/ele0013500/ti-Indice-de-Desarrollo-Humano-por-indicadores-segun-paises-2019/tbl0013566-c.html>
- Export Potential: Singapurrekiko esportazio potentziala: <https://exportpotential.intracen.org/es/products/tree-map?toMarker=j&market=702&fromMarker=w&exporter=w&whatMarker=k>
- Export.gov: Singapore Market Opportunities: <https://www.export.gov/apex/article2?id=Singapore-Market-Opportunities>
- ICEX, Singapurren txosten ekonomiko eta komertziala:
https://www.icex.es/icex/wcm/idc/groups/public/documents/documento/mde5/odmx/~edisp/doc2019831643.pdf?utm_source=RSS&utm_medium=ICEX.es&utm_content=23-09-2019&utm_campaign=Informe%20econ%C3%B3mico%20y%20comercial.%20Singapur%202019
- ICEX, Singapurren Esparru Politikoa. <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/marco-politico/index.html?idPais=SG>
- ICEX, Singapurren nazioarteko harreman ekonomikoen laburpena: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-pais/informacion-economica-y-comercial/relaciones-economicas-internacionales/index.html?idPais=SG>
- IMF, World Economic Outlook: <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>
- International Monetary Fund, World Economic Outlook, April 2020: Chapter 1.
<https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>
- International Monetary Fund, World Economic Outlook, April 2020: The Great Lockdown.
<https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>
- Ministry of Manpower, Summary Table: Employment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Employment-Summary-Table.aspx>
- Ministry of Manpower, Summary Table: Unemployment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Unemployment-Summary-Table.aspx>
- Ministry of Manpower, Summary Table: Unemployment. <https://stats.mom.gov.sg/Pages/Unemployment-Summary-Table.aspx>
- Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI Downgrades 2020 GDP Growth Forecast to "-7.0 to -4.0 Per Cent". <https://www.mti.gov.sg/Newsroom/Press-Releases/2020/05/MTI-Downgrades-2020-GDP-Growth-Forecast-to--7-0-to--4-0-Per-Cent>
- Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI downgrades 2020 GDP growth forecast to "-0.5 to 1.5 per cent". <https://www.singstat.gov.sg/-/media/files/news/gdp4q2019.pdf>
- Ministry of Trade and Industry Singapore, MTI downgrades 2020 GDP Growth Forecast to "-7.0 to -4.0 Per Cent". https://www.mti.gov.sg/-/media/MTI/Resources/Economic-Survey-of-Singapore/2020/Economic-Survey-of-Singapore-First-Quarter-2020/PR_1Q20.pdf



- Ministry of Trade and Industry, Main indicators of the Singapore economy. https://www.mti.gov.sg/-/media/MTI/Resources/Economic-Survey-of-Singapore/2019/Economic-Survey-of-Singapore-2019/MainIndicators_AES2019.pdf
- Open Company Singapore, Imports and Exports: <https://www.opencompanysingapore.com/imports-and-exports-in-singapore>
- Santander Trade, Singapurren Testuinguru Ekonomikoa. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/politica-y-economia>
- Santander Trade, Singapurreko esparru politikoa. <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/politica-y-economia>
- Santander Trade: Kanpo merkataritzaren zifrak Singapurren: https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/singapur/cifras-comercio-exterior?actualiser_id_banque=oui&id_banque=11
- Singapore Budget, Budget 2020. https://www.singaporebudget.gov.sg/budget_2020/
- Singstat, Singapore Exports and Imports. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>
- Singstat.gov, Singapore Economy. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/economy>
- Singstat.gov, Singapore international trade: <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>
- Singstat.gov: GDP Infographic 2019: <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/economy>
- Singstat.gov: Singapore International Trade. <https://www.singstat.gov.sg/modules/infographics/singapore-international-trade>
- The Straits Times, From the Gallery: \$55b Resilience Budget to tackle coronavirus shows the importance of deep reserves amid continuing uncertainty. <https://www.straitstimes.com/politics/from-the-gallery-55billion-resilience-budget-to-tackle-coronavirus-shows-the-importance-of>
- Trading Economics, Singapore Exports: <https://tradingeconomics.com/singapore/exports>
- UNCTAD, World Investment Report 2019: https://unctad.org/en/PublicationsLibrary/wir2019_en.pdf
- Worldbank, Singapore Statistics. <https://data.worldbank.org/country/singapore>
- Worldometers, Singapore population live. <https://www.worldometers.info/world-population/singapore-population/>

© Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT